

Juan Lopez de Zubiria Galarza
Bakaiku, Nafarroa (1905)

Aurkibidea

Biografia

Bakaikun jaioa 1905ean. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Zintak

BAK-001

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 7 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Han eta hemen lanean ibilia

- **Erref:** BAK-001/001
- **Iraupena:** 0:07:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lanbideak » Etxeginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Eraikuntzan lan egin izan du. Han eta hemen ibili izan dela lanean kontatzen du: Madrilen, Avilan, Palentzian... Iratiko basoetan ere lanean ibilia da.</p>

Transkripzioa

- Eta orduan, hemen bertan jaio zinen, ezta?
- Bai, ta azi ta gäiyo? fuera ibiliz, e? yo ka- e, kanpuen asko ibil neiz; erriy untan? arrui, eta aita ta ama ta danak emenguek, emengo zea.
- Eta hemendik kanpora, non ibili zara?
- Ön! Madrilen sei urte... obra batien.
- Konstrukzioan ibili zara?
- Bai, kostruziyuen; Avilan, zui batien iru urte, Avilan. Palenzien? urte bat... azukarera bat iten; Terulen? ferrokarril berri bat it(t)en, ta, beste bi urte? Irätiko mendiyen, aituko zinduen, Iratiko mendiya. Iratiko mendi(y)än?... aizkurekin paguek-eta botatzen.
- Non, Orbaizeta inguru horretan edo?
- Eh! goraxo! Orbaizeta baindo; an, an, bai, an... an. Orbaizeta(a) faten gindan lebizko... erriya gertuena; bueno! bestä bat nekan gertuxo baia, ez zan ur gutako ondo eiten: Otsagabia!... aituko zindun Otsagabia ere, t'on ibili biaiz, in tzaz kontuan, öltzan ibili nitzan ni, gaztia nitzala, gero, zartu aur(re)ti.
- Hango euskara bai diferentea, e? adituko zenuen orduan, e?
- Bai, baia, bai-bai, beia... nee denboan, kasi eztakiyin, e?
- Nola?
- Ni ibil nitzan garäy artan? auskeraz gutxik zekiy(e)in, gutxik!... bai.
- Baina aditu zenuen pixkat, e?
- Bai, bai, bai, bai, bai...
- Eta hala nola guk esaten dugun 'hau, hori, hura', haiek 'kau, kori, kura'...
- Bai, beste... beste zea bat ematen dei, bai-bai.
- Eta Madrilen, sei urte konstrukzioan?
- Bai.
- Zer egiten? etxeak?
- Ez! etxeik ez, lasa esain dezut: ferrokarril bat berriya, emetik? agregatu? Alsasua; eta... bi... bi estaziyo, etxe ortaa? ta jefendako estaziya ta, dana konpletu iten! dana.
- Sei urte, e?
- Säi urte.
- Eta bizi non? etxetan edo barrakoitan edo non eduki zintuzten?
- Pa-, parte bat barrakonetan, eta... Palentzien-Teruelären? an e... barretan; t'Irätiko mendien? ee, beh! zean, txabolan... makilak jarri oi-, uiriakoa bekela? ta iyoztorra botatz(e) an... ta goizien gosaitako babak.

- Babak gosaritarako, e?

- Bai, bazkaitako babak...

- Eta afaritarako?

- Afaitako babak. Ta oiati moitu goizeko bostetan, basora fateko? eta, nai dena deseinatu? ogi-kozkor bat; nai bauk jua da nai bau(k) utzi.

Desiatien noiz etorko a gosaiye, ta babak, olaxe! bab andi bätzük...

- Baina egunero gauza bera ere...

- Gauza bera... bai, sei-zazpi ilabete an, tzean, primaderatik udaizkena, bai.

- Babak indarra ematen omen du...

- Bai, e... ematen dau subre...

- Ematen diete ere idiei, apustueta...

- (Alaba Lourdes:) Ellos también les daban, e? a lo que dicen.

- ¿Qué?

- (Alaba:) Que vosotros también les dabais habas, no? a los bueyes...

- Sí, sí, habas.

- Indarra ematen omen du, e?

- ¿Habas? en un cajón grande hecho a propósito, echar allá el saco entero, po-po-po-po-po... pon? y remojar; antes que dar? remojaö; hoy pa mañana, mañana pa pasaö, remojaö. Zebadero pa ellos.

- Eta Avilan zer aritu zinen egiten?

- Avilan? esan dut: zuiya, sei urtekues ta, o iru urte.

- Ah, zubi? zubia?

- Zuiya, puente, un puente, zuiya.

- Eta Teruelen?

- Terueleren ferrokarrila; emengo jende asko, e? ta, ni ibil nitzan tunel, nai tokatu tzeidan tunelëan itea... oso kontentu!

- Eta gazterik joan zinen? gazte zinela?

- Menditi, Iratiko mendietaa asi nitzan ni juten? amabost urtekën pintxe... pintxe, pintxe.

- (Alaba:) Pero no fuiste con once años a trabajar, aita?... amaika urtin?

- Ez, amabost urte, amabost... amabost urte; beh! betetzeko o beteik? amabost urte.

- Pintxe, laguntzeko, ezta?

- It(t)urriti ur ekarri, ta barrenguen daune zeintzen ibili, ta aitan ere bai ta, ayir (?) barrakoian, ta olako gauzak. Geo... enkargatubendako mandatuonen bat bazekan errie fan-da o tabako ekarri o... ta olako lanetan.

- Aitarekin joan zinen?

- Ez! best atekën, emengo bateki(n)... jun nitzan.

- Eta gero jada esan dituzun leku horietara guzietara, ezta?

- Bai, bai, geo leku guzik be, ta gainea, ore... asko utzen dezkitut, esan be: nagosia? ona, gipuzkuanua, Urnietakuä, nagusia; oso nagusi onradua!... Geo ibil nitzanien e... Madrilen ibili nitzenien, e? säi urte an da bestien iru ta, orduen? zer ba, Urnietakua, esan dotena, nagosi: Bartolome Lasarte... bai.

- Eta herrira etorri zineneko bazenituen 30 urte, ez?

- Ez, baia erria etortzen nitzan e... tzean, fiestatan-dä etortzen nitzän; aurtien ezpanitzan etortzen? datorren urtien, ta, ta bestela, aurtien da gioz ez fan nitzan? Gaubonetan, etorri, etorritzen nitzan.

- Noizean behin eskapada bat, e?

- Bai, bai... bai, irabazten nen diru pixka bät biddaltzen non... d'ola!

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com